



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 54. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Martxo



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

> I+G-ak Gipuzkoan duen intentsitateak Europar Batasunarena portzentajezko 4 hamarrekotan gainditzen du

Gipuzkoan I+G-an egindako gastua BPGaren % 2,41eko parte-hartzea izatera iritsi zen 2009. urtean. I+G-an egindako gastuaren intentsitate hau Europar Batasunaren batez bestekoa (% 2,01) zein estatu kide gehienena baino handiagoa da, bost estaturen kasuan izan ezik: Finlandia (% 3,96), Suedia (% 3,60), Danimarka (% 3,02), Alemania (% 2,82) eta Austria (% 2,75).

Hamarkadaren hasieran, Gipuzkoak I+G-an egindako gastua (201ean % 1,44) Batasuneko batez bestekoa (% 1,86) baino baxuagoa zen, baina azken hamarkadan barrena batez besteko horrekin elkartzen hasi zen, eta 2007an gainditzera iritsi zen.

Diruari dagokionez, Gipuzkoako gastua 510 milioi eurora iritsi da, eta horietatik % 80 enpresek egindakoa da; % 17 administrazio publikoak eta % 3 unibertsitateak. Gastuaren finantziarioari dagokionez, % 41 administrazio publikoari dagokio.

I+G sektoreko pertsona kopurua 6.740 izatera iritsi da, biztanleria okupatuaren % 2,2. Horietatik 4.194 langile ikertzaileak dira.

*Informazio gehiago.*

[http://eu.eustat.es/ci\\_ci/elementos/ele0003200/ti\\_IGko\\_gastua\\_BPGdaren\\_\\_herrialdearen\\_arabera1997-2009/tbl0003292\\_e.html#axzz1KoZx7A85](http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0003200/ti_IGko_gastua_BPGdaren__herrialdearen_arabera1997-2009/tbl0003292_e.html#axzz1KoZx7A85)

[http://eu.eustat.es/elementos/ele0006800/ti\\_BPGrekiko\\_IGko\\_gastuan\\_Gipuzkoa\\_sendo\\_Europako\\_batez\\_bestekoaren\\_gainetik/not0006822\\_e.html#axzz1KoZx7A85](http://eu.eustat.es/elementos/ele0006800/ti_BPGrekiko_IGko_gastuan_Gipuzkoa_sendo_Europako_batez_bestekoaren_gainetik/not0006822_e.html#axzz1KoZx7A85)



### > Saiatu proiektua: Gizarte-berrikuntza Lehen Pertsonan

Martxoaren 7an Saiatu: Gizarte-berrikuntza Lehen Pertsonan izeneko proiektua aurkezteko jardunaldia egin zen Donostian. Proiektuaren helburua, lan-munduan txertatzeko arazo bereziak dituzten enpleguskatzaileen ekintzailetzaren inguruko berrikuntza da.

Europako Gizarte Funtsaren finantziazioarekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak egindako proiektua 2009aren bukaeran abiatu zen, eta orain arteko jarduera enpresa berriak sortzeko aukerak identifikatzen, kolektibo horiek sortutako negozio-ideia berriak babesten, eta merkatuaren beharrei lotuta, gizarte- eta lan-munduan txertatzeko aukera handiak dituzten prestakuntza-prozesuak garatzen oinarritu da.

Lau ekintzailetza esperientzien bidez proiektuak lortutako emaitzak aurkeztearekin batera, jardunaldian barrena Erresuma Batuan zerbitzuak eta zainketa aringarriak finantzatzeko eredu berriei buruzko txostena aurkeztu zuen Charles Leadbeaterrek.

*Informazio gehiago.*

<http://www.proyecto-saiatu.net/sek/hasiera/>



### KOMUNITATEKO POLITIKAK

#### > Enpresen zerga-oinarria: sistema komuna

Europako Batzordeak sistema komun bat proposatu du Europar Batasunean lan egiten duten enpresen zerga-oinarria kalkulatzeko.

Proposamenaren xedea, erregimen nazional desberdinetara egokitu beharraren ondorioz gaur egun EBean enpresek jasaten dituzten administrazioko lan-karga, adostasun-kostuak eta segurtasun juridiko eza nabarmen murriztea da.

Proposatutako sozietateen zergaren gaineko zerga-oinarri bateratu komunaren ondorioz, zerga-aitorpenak egiterakoan enpresek leihatila bakarreko sistema bati heltzeko aukera izango lukete eta EB osoan izandako irabazi eta galera guztiak bateratzeko aukera izango lukete. Estatu kideek sozietateen gaineko zerga-tasak ezartzeko dagokien eskubidea bere horretan mantenduko lukete.

Sozietateen gaineko zergaren kasuan, merkatu bakarraren aurrean oztopo handiak daude eta horiek enpresen garapena gelditzen dute. Mugaz haraindiko enpresak 27 araudi desberdinetara egokitu behar dira euren zerga-oinarria kalkulatzeko eta 27 zerga-administrazio desberdinekin lan egin behar dute. Halaber, taldearen barruan transakzioen zergak zein modutan ordaindu behar dituzten zehazteko (transferentziaren prezioa), oso konplexua den erregimenari aurre egin behar diote eta estatu kide batean izandako galerak ezin dituzte beste batean izandako irabaziekin konpentsatu. Horren ondorioz, enpresa handiek izugarriko kostuak eta zailtasunak jasaten dituzte, eta egoera honek EB barruan zabaltzeko asmoa kentzen die txikiei.

*Informazio gehiago.*

[http://ec.europa.eu/taxation\\_customs/taxation/company\\_tax/common\\_tax\\_base/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/company_tax/common_tax_base/index_en.htm)



### > Herritarren ekimen europarra

Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialak herritarren ekimenari buruzko Araudia argitaratu du. Lisboako itunak sortutako herritarren ekimen europarraren modalitate praktikoak zehazten ditu ekimenak.

Ekimena Batzordeari aurkeztu zaio, eta era berean, bere eskuduntzen alorrean aurkez dezan gonbitea luzatu zaio Batzordeari. Itunak aplikatzeko helburuetarako, herritarren ustez Batasuneko ekintza legegile bat zein gaitan beharrezkoa den azaltzen duen proposamen egokia da.

Gutxienez horretarako gaitasuna duten milioi bat sinatzaileen babesa behar da, eta gutxienez, zazpi estatu kideak izan behar dira.

Antolatzaileek herritarren batzorde bat osatuko dute, eta batzordea gutxienez zazpi estatu kideetan bizi diren zazpi pertsonen osatuta egongo da. Ordezkaritza bat eta ordezkari bat («harremanetarako pertsonak») izendatuko dira, eta herritarren batzordearen eta Europar Batasuneko erakundearen arteko lotura izango dira prozesu osoan barrena, eta herritarren batzordearen izenean hitz egin eta jarduteko eskumena izango dute.

Erregistroa egiteko, eta hala badagokio, euren web-orrian, antolatzaileek laguntza-iturrien eta proposatutako herritarren ekimenaren finantziazioaren inguruko informazio eguneratua maiztasunez eskaini beharko dute.

Europako herritarrek 2012ko apirilaren 1etik aurrera izango dute tresna berri hau erabiltzeko aukera.

*Informazio gehiago.*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2011:065:0001:0022:ES:PDF>



### > Bizitzan osoan zeharreko ikaskuntza praktikan jartzea: pertsona helduak hezkuntza formalean

Eurydiceren “Helduak Hezkuntza formalean: Europako Politikak eta Praktikak” izeneko txostenak gaur egungo egoeraren berri ematen du, Helduen Ikaskuntzarako Ekintza-plana argitaratu ostean (Beti da ikasteko une egokia, Europako Batzordea, 2007).

Prestakuntza egiaztaturik ez duten pertsona helduek hezkuntza formal bat eskuratzeko gutxienez goi-mailako bigarren hezkuntza egin duten pertsonak baino aukera gutxiago dutela adierazten du. Neurri batean, hori hezkuntza formaleko sistemaren egiturazko oztopoen ondorioz gerta daiteke. Europako herrialde askotan, oinarriko hezkuntza edo behe-mailako bigarren hezkuntza bukatu ez duten pertsona helduek oso aukera gutxi izaten dituzte hezkuntza- eta prestakuntza-sistemaren goi-mailetara iristeko.

Eskaintzaren malgutasunak pertsona helduek egiaztatutako prestakuntza lortzeko aukerak areagotzen ditu. Herrialde batzuetako hezkuntza formala eta prestakuntza-programak modulu edo unitateen arabera antolatzen dira, eta horrela, pertsonak euren ikaskuntza bidea deskubritzeko eta prestakuntza osagai desberdinak eskuratzeko aukera dute. Gainera, Europako hainbat herrialdetan, ikasten ari diren pertsona helduek prestakuntza egiaztatzen duten ziurtagiriak eta beste mota bateko egiaztagirak eskuratzeko azterketak egin ditzakete, aldez aurretik hezkuntza- eta prestakuntza-programetan parte hartu gabe.

Orain arte soilik Europako herrialde batzuk aurkeztu dituzte pertsona helduek goi-mailako hezkuntzan parte hartzeari buruz definitutako helburuak. Hala ere, goi-mailako hezkuntzan sartzeko bide tradizionala jarraitzen ez duten hautagai eta ikasleen beharretara egokitzen diren neurriak martxan jarri dituzte herrialde askok.

*Informazio gehiago.*

[http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic\\_reports/eu\\_press\\_release/128ES\\_HI.pdf](http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic_reports/eu_press_release/128ES_HI.pdf)





## KOHESIO-POLITIKA

### > RegioStars sariak

RegioStars sariak Europar Batasunaren eskualdeko politikak babestutako proiektu berritzaileentzako sariak dira eta urtero egiten den ekitaldi batean banatzen dira.

RegioStars 2011 sarien epaimahaiak jada 31 finalista hautatu ditu bost kategoriatan desberdinetan. Edizio honetan, guztira, 66 eskaera aurkeztu dituzte proiektu-sustatzaileek eta 18 estatu kideetako eskualdeek.

2. kategorian, "Lehiakortasun ekonomikoa, aldaketa ekonomikoari aurre hartuz" BioBasque 2010 proiektua dago, eta biozientzietan lotutako Euskadiko enpresa-sektore baten garapena da. Proiektu hau EGEFekin batera finantzatu da, 51,96 milioi euroekin.

Kategoria honetako lau finalistak Flandes, Ingalaterrako ipar-ekialdea, Suediako eskualdeak eta Europako iparreko sei herrialdeek aurkeztutako proiektuak dira. Sariaren irabazleen berri «Eskualdeak, aldaketa ekonomikoaren aktoreak» izeneko konferentzian emango da, ekainaren 23an.

Halaber, RegioStars 2012 sarietarako deialdia egin da, eta epea uztailaren 15ean amaituko da.

*Informazio gehiago.*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/cooperation/interregional/ecochange/doc/regiostars/2011/regiostars2011.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperation/interregional/ecochange/doc/regiostars/2011/regiostars2011.pdf)

<http://www.biobasque.org/aBBW/web/en/index.jsp>

### > POCTEFA programaren bigarren deialdiaren aurkezpena

Apirilaren 7an sentsibilizazio eta informazio jardunaldia egin zen Iruñean, Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde-kooperazio Programaren (POCTEFA) bigarren deialdiaren baitan.

Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde-kooperazio Programa Operatiboa Eskualde Garapeneko Europako Funtsak finantzatu du, 168 milioi euro inguruko aurrekontuaren bidez, eta deialdi honi begira 29,5 milioi euroko aurrekontua du EGEFek.

Jardunbide egokien alorrean, ENERTIC proiektua aurkeztu zen: Donostiako 27. poligonoan kokatzen den Energia Berriztagarrien eta Energiaren Eraginkortasunaren sektorerako Mugaz Harandiko Erreferentziako Zentroa.

*Informazio gehiago.*

<http://www.poctefa.eu/agenda/detalleconvocatoria.jsp?id=578b7a9e-1e75-45bc-aaa3-2fd7e12adb57>

<http://www.fomentosansebastian.org/es/centros/enertic>



### > Subsidiarotasunari buruzko goi-bilera

Subsidiarotasunari buruzko V. Goi-bilera egin zen Bilbon martxoaren 21ean, Eskualdeetako Lantaldeak antolatuta, eta Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuten.

CdR-ko arduradun gorenek parte hartu zuten ere bileran, EBeko tokiko eta eskualdeko erakundeen ordezkarietan, eta zuzenean eragiten dieten gaiari buruzko erabakiak hartzeko orduan, Lisboako Itunak subsidiarotasunaren esparruan botere horiei -herritarrengandik hurbilen daudenak- ematen dien paperaren inguruan eztabaidatu zuten.

Horrela, besteak beste, Batasuneko legeria eta subsidiarotasunaren printzipioa tokiko eta eskualdeko mailetan nola aplikatzen den eztabaidatu zuten; halaber, Lisboako Itunean ezarritako "alerta goiztiarra" izeneko mekanismoaren bidez Europako Batasunaren prozesu legegilea berrikusteko orduan eskualdeetako legebiltzarrek duten paperari buruz hitz egin zuten.

*Informazio gehiago.*

[http://portal.cor.europa.eu/subsidiarity/SiteCollectionDocuments/Nota%20informativa%20Conferencia%20Subsidiariedad%20\(1\).pdf](http://portal.cor.europa.eu/subsidiarity/SiteCollectionDocuments/Nota%20informativa%20Conferencia%20Subsidiariedad%20(1).pdf)

<http://www.irekia.euskadi.net/es/news/5362-europa-debate-euskadi-sobre-principio-subsidiariedad#>





### e-LIBURUTEGIA

#### > Emakume eta gizonen arteko ordainsarien desberdintasuna

Eurofounden "Emakume eta gizonen ordainsarien desberdintasunaren aurka jardutea: gobernuen eta lan-munduko ordezkarien ekimenak" izeneko txostenak nabarmendu duenez, emakumeen eta gizonen arteko ordainsarien desberdintasuna % 17,6koa da Europan. Portzentaje honek ez ditu kontuan hartzen lan egindako ordu-kopurua, kontratu motak, eta abar.

Emakumeen soldaten desberdintasunaren arrazoia, neurri batean, emakumeek sarriago lanaldi partzialeko kontratuekin lan egitea da; euren ibilbide profesionala maizago eta epe luzeagoetan (horrek lan-esperientziaren guztizko iraupena murrizten du) eteten dute, eta soldatak baxuagoak diren eta ordezkari-tza kolektiboa eta negoziatzeko ahalmen ahulagoak dituzten enpreetan eta sektoreetan lan egiten dute.

Gobernu nazionalak eta lan-munduko ordezkariak soldaten inguruan genero desberdintasunari aurre egiteko martxan jarritako politika eta ekimenak deskribatzen ditu, eta horren inguruan enpresek aplikatutako jardunbide egokien hainbat adibide nabarmentzen ditu.

*Informazio gehiago.*

<http://www.eurofound.europa.eu/pubdocs/2010/181/es/1/EF10181ES.pdf>

<http://www.eurofound.europa.eu/pubdocs/2010/18/en/2/EF1018EN.pdf>



### > Demografia Europar Batasunean

Europako Batzardeak 2010eko demografia europarrari buruz argitaratutako txostenak baieztatu duenez, Europako biztanleriaren bizitza gero eta luzeagoa (60 urtetik gorako pertsonen kopurua 2 milioi handitzen da urtero) eta osasuntsuagoa da.

Aztertutako alderdien artean, ugalkortasunaren igoera joera positibotzat jotzen du, eta emakume bakoitzeko 1,6 seme-alabakoa da. Halaber, bizi-itxaropena handitu egin da, ia etengabea eta berdina den joera jarraituz, urtero 2 eta 3 hilabete artean (2008an, bizi-itxaropena 76,4 urte zen gizonentzat eta 82,4 urte emakumeentzat).

Era berean, lau estatu kidek (Bulgaria, Lituania, Letonia eta Errumania) duten erronka demografikoa agerikoa da; herrialde horietako biztanleak azkar murrizten ari dira, hazkunde natural negatiboaren eta kanporako migrazioaren ondorioz.

Halaber, Europako biztanleriaren hazkundera oraindik batez ere immigrazioaren ondorioz elikatzen dela adierazten du txostenak; urte bakoitzean 1 eta 2 milioi artekoa da, eta EBaren barruko mugikortasuna ere areagotu egin da.

2060. urtean etorkinen eta euren ondorengoen kopurua bikoiztu egingo dela aurreikusten da. Krisiaren ondoren EBrako immigrazio garbia erdira murriztu bada ere, EBaren barruko mugetan hirugarren herrialdetako nazionalen gutzizko kopuruak handitzen jarraituko du.

*Informazio gehiago.*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=89&newsId=1007&furtherNews=yes>

### > Mikroenpresen eskumenak 2020ari begira

Europako Batzardeak argitaratutako txostenak mikroenpresek datorren hamarkadari begira dituzten erronkak ikertzen ditu. Alderdi nagusietako bat kanpoko merkatuetara bideratzeko eta prozesu horri heltzeko hizkuntza ezagutzeko eskaeren beharra dira.

Etorkizuneko behar eta garapenei zuzendutako prestakuntza-programak aurreko urteetan baino gehiago garatzeko gomendioa egiten du azterketak, eta enpresa horiek duten bitarteko eza ikusita, epe ertain eta luzera begirako estrategien lanketari buruz informatu eta horiek babesteko beharra azpimarratzen du.

*Informazio gehiago.*

[http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/promoting-entrepreneurship/files/skillsneeds\\_final\\_report\\_final\\_180211\\_fr.pdf](http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/promoting-entrepreneurship/files/skillsneeds_final_report_final_180211_fr.pdf)



## ADIERAZLEAK

### > Berrikuntza Euskadin eta Europar Batasunean

Europako berrikuntzaren adierazlea 0,45era iritsi zen Euskadin 2010ean, Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik, Eustatek emandako datuen arabera.

Europako herrialdeak lau kategoriatan multzoka daitezke: berrikuntzan buru direnak (Suedia, Danimarka, Finlandia eta Alemania), berrikuntza handia dutenak (Erresuma Batua, Belgika, Austria, Herbehereak, Irlanda, Luxenburgo, Frantzia, Zipre, Eslovenia eta Estonia), neurrizko berrikuntza dutenak eta berrikuntza baxua dutenak. Euskadi berrikuntza handia duten taldeen azken lekuan kokatuko litzateke.

Europako batez bestekoari dagokionez, Euskadi Berrikuntzaren Adierazleen Taulan hiru dimentsiotan nabarmentzen da: Giza baliabideak, Enpresen inbertsioa eta Enpresen loturak eta ekimena; gainerakoetan azpitik dago.

*Informazio gehiago.*

[http://eu.eustat.es/ci\\_ci/elementos/ele0006800/not0006870\\_e.html#axzz1KoZx7A85](http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0006800/not0006870_e.html#axzz1KoZx7A85)

<http://www.proinno-europe.eu/inno-metrics/page/innovation-union-scoreboard-2010>



### > Gizarte babesaren gastua Europar Batasunean eta Gipuzkoan

Europar Batasuneko gizarte babesaren gastua BPGaren % 26,4 zen 2008an, Eurostatek egindako argitalpenaren arabera, eta herrialdeen artean desberdintasun nabarmenak daude.

Frantzia (% 30,8), Danimarka (% 29,7), Suedia (% 29,4), Holanda (% 28,4), Belgika (% 28,3) eta Austriaren gastuaren adierazleak nabarmentzen dira; Letonia eta Errumania, berriz, ez dira % 15era iristen. Erosteke ahalmenaren parekotasuna eurotan begiratuta, biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 6.604 euro izan zen, herrialdeen artean desberdintasun nabarmenak daudelarik.

Europako gastuaren % 45 zahartzea/alargunak atalera bideratzen da; % 30 gaixotasunari dagokio, % 8 familia/semi-alabei, % 8 minusbaliotasunari, % 5 langabeziari eta % 3 etxebizitza eta gizarte bazterketari.

Azken hamarkadan gizarte babesera bideratutako BPGaren portzentajeak joera egonkorra izan du (2001ean % 6, 2003an % 27,2 gehienezkora iritsiz).

Gipuzkoan Eustatek balioetsitako gizarte babesaren gastua BPGaren % 19,6an kokatu zen 2008an (guztira, 4.354 milioi euro). Gastu horretatik % 52 gizarte segurantzako sistemari dagokio, eta biztanle bakoitzeko gastua 6.256 euro da.

Gastuaren % 50 zahartzea/alargunak taldera bideratzen da; % 30 gaixotasuna/osasun-arreta taldera, % 8 minusbaliotasunera, % 7 langabeziara, % 3 familia/semi-alabak taldera eta % 2 etxebizitza eta gizarte bazterketara.

*Informazio gehiago.*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-11-017/EN/KS-SF-11-017-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-017/EN/KS-SF-11-017-EN.PDF)

[http://es.eustat.es/elementos/ele0000400/ti\\_Gasto\\_en\\_Prestaciones\\_Sociales\\_en\\_la\\_CA\\_de\\_Euskadi\\_por\\_funciones\\_sistema\\_y\\_territorio\\_historico\\_miles\\_e\\_indicadores\\_2008/tbl0000417\\_c.html#axzz1KoZUb9KE](http://es.eustat.es/elementos/ele0000400/ti_Gasto_en_Prestaciones_Sociales_en_la_CA_de_Euskadi_por_funciones_sistema_y_territorio_historico_miles_e_indicadores_2008/tbl0000417_c.html#axzz1KoZUb9KE)